# Zinexit
2018

## Elkarbizitzaranzko
## 9. Zine Erakusketa

9ª Muestra de Cine
hacia la Convivencia



**BILBAO**
Azaroak 19-23 Noviembre

**BARAKALDO**
Azaroak 20 Noviembre

**BASAURI**
Azaroak 28 Noviembre

**VITORIA-GASTEIZ**
Azaroak 29 Noviembre

www.zinexit.net

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

eskerrak
gracias
giza eskubideei
a los derechos humanos

70 URTE
GIZA ESKUBIDEEN
ADIERAZPEN UNIBERTSALA
#STANDUP4HUMANRIGHTS

# Zinexit

## Elkarbizitzaranzko
## 9. Zine Erakusketa

9ª Muestra de Cine
hacia la Convivencia




**BILBAO**
Azaroak 19-23 Noviembre

**BARAKALDO**
Azaroak 20 Noviembre

**BASAURI**
Azaroak 28 Noviembre

**VITORIA-GASTEIZ**
Azaroak 29 Noviembre

Pasa den urriaren 9an, Zinexit Topaketaren barruan, aurreratzen genizuen bezala, ZINEXIT, Elkarbizitzaranzko 9. Zine Erakusketaren aurtengo bederatzigarren edizioa Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrenaren markoan kokatu nahi dugu. Nazio Batuek kanpaina bat abiatu dute urteurrena ospatzeko, "Defenda ditzagun ekitatea, justizia eta giza duintasuna" lelopean. Euskal erakundeek bat egin nahi izan dugu ospakizun horrekin, mezu partekatu bat zabalduz, *Eskerrak* hitzaren inguruko mezu bat hedatuz. "Eskerrak Giza Eskubideei" adierazi nahi diegu existitzeagatik, haiei esker lortu den guztiagatik, baita ere, oraindik bete gabe ditugun erronka guztiak gogorarazteagatik.

Asko baitira eskertu behar dizkiegunak, baina egiteko daudenak ere ez dira gutxi: aniztasuna eta elkartasuna moduko balioen kudeaketa, errefuxiatuen harrera, migrazioak, pobrezia, erlijio- edo kultura-pluraltasuna, genero-berdintasuna, LGTBI pertsonen eskubideak, bazterkeria eta injustizia berriak, besteak beste, urteurren hau modu proaktiboan ospatzera eraman behar gaituzten erronka garrantzitsuak dira.

ZINEXITen bederatzigarren edizio honetan hausnarketa egin ahal izango dugu orain arte lortutakoaz, baita konpontzeko zain dauden erronkez ere, eta erakundeek, entitateek eta herritarrek lan egin ahal izango dugu. ESKERRAK Giza Eskubideei.

Hausnarketa horretan guri laguntzera eta urteurrena ospatzera gonbidatzen zaituztegu, zinearen liluraren eskutik.

*Tal y como ya adelantamos el pasado 9 de octubre, con ocasión del Zinexit Topaketa, este año enmarcamos la novena edición del ZINEXIT, Muestra de cine para la Convivencia, en la celebración del 70 aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos. Naciones Unidas, ha lanzado una campaña de conmemoración cuyo eslogan es "Defendamos la equidad, la justicia y la dignidad humana". Las instituciones vascas nos hemos querido sumar a esta celebración difundiendo un mensaje compartido, un mensaje que gira en torno a la palabra Gracias. "Gracias a los Derechos Humanos" por existir, gracias por lo que con ellos se ha logrado y gracias también por recordarnos todos los retos que tenemos todavía pendientes.*

*Porque son muchas las cosas que tenemos que agradecerles, pero también son muchas las que están pendientes: la gestión de valores como la diversidad y la solidaridad, la acogida a las personas refugiadas, las migraciones, la pobreza, la pluralidad religiosa o cultural, la igualdad de género, los derechos de personas LGTBI, las nuevas formas de exclusión e injusticia, entre otros, son retos importantes que nos tienen que llevar a celebrar este aniversario de una forma proactiva.*

*En esta novena edición del ZINEXIT vamos a poder reflexionar sobre lo logrado y también sobre todos estos retos que tenemos pendientes, y que vamos a poder trabajar, desde las diferentes instituciones, entidades, y desde la ciudadanía GRACIAS a los Derechos Humanos.*

*Os invitamos a acompañarnos en esta reflexión y a celebrar este aniversario, guiadas por la magia del cine.*

**Monika Hernando Porres**

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaria, Lehendakaritza.
*Directora de Víctimas y Derechos Humanos, Lehendakaritza.*

# Zinexit
## **Programazioa /** Programación

### **BILBAO. GOLEM AZKUNA ZENTROA.** Sala 1. Aretoa.

| **FILMA /** PELÍCULA | **EGUNA /** DÍA | **ORDUA /** HORA |
|---|---|---|
| A YEAR OF HOPE | Astelehena 19 Lunes | 19:30 |
| WHEN THE WAR COMES | Asteartea 20 Martes | 19:30 |
| MR GAY SYRIA | Asteazkena 21 Miércoles | 19:30 |
| CITY OF GHOSTS | Osteguna 22 Jueves | 19:30 |
| 12 ANGRY MEN | Ostirala 23 Viernes | 19:30 |

### **ZABAKULTZA UDALETARA /** EXTENSIONES MUNICIPALES

| **UDALA /** MUNICIPIO | **FILMA /** PELÍCULA | **EGUNA /** DÍA | **TOKIA /** LUGAR | **ORDUA /** HORA |
|---|---|---|---|---|
| BARAKALDO | RAZZIA | Azaroak 20 Noviembre | Centro Cívico Clara Campoamor | 18:30 |
| BASAURI | RAZZIA | Azaroak 28 Noviembre | Social Antzokia | 19:00 |
| VITORIA-GASTEIZ | MR GAY SYRIA | Azaroak 29 Noviembre | Cines Florida Zinemak | 18:30 |

### ZINEXIT ESKOLA. GOLEM AZKUNA ZENTROA

| **FILMA /** PELÍCULA | **EGUNA /** DÍA | **ORDUA /** HORA |
|---|---|---|
| TOM TXIKI ETA ISPILU MAGIKOA | Asteartea 20 Martes | 10:00 |

### BOSA! PROGRAMA. GOLEM AZKUNA ZENTROA

| **FILMA /** PELÍCULA | **EGUNA /** DÍA | **ORDUA /** HORA |
|---|---|---|
| LA BICICLETA VERDE | Asteazkena 21 Miércoles | 9:00 – 11:00 |
| LA BICICLETA VERDE | Osteguna 22 Jueves | 10:00 |

**Astelehena 19** Lunes

# A year of hope

**Danimarka. 2017. 84 min. Dokumentala**



**Jatorrizko izenburua**/*Título original*: A year of hope
**Zuzendaria**/*Directora:* Mikala Krogh
**Gidoia**/*Guión:* Mikala Krogh
**Ekoizlea**/*Productor:* Sigrid Jonsson
**Muntaia**/*Montaje:* Cathrine Ambus
**Argazkia**/*Fotografía:* Morgan Knibbe
**Musika**/*Música:* Kristian Eidness

**Estreinaldia** / Estreno

Filipinetako Manila hiriburuko kaleetan bizi den haur talde batek bizitza betirako aldatzeko aukera izango du. Urtebeteko egonaldia eskainiko diete haur hauei, hiriburutik urruti, irla bateko errehabilitazio zentro batean. Hango bizimoduak paradisukoa dirudi ordura arte izan duten bizimoduarekin alderaturik.

Hauetako haur askok sexu-abusuak jasan dituzte, drogazaleak dira, familiarteko indarkeriaren biktima eta hilketen lekuko izan dira. Beste ezeren gainetik dama izan nahi duen 13 urteko Tracy, eta irribarre egitea ahaztu duen 15 urteko Joshua isila dira protagonistak.

MIKALA KROGH

2011n Danish Film Schoolen graduatua, Jørgen Leth daniar maisuarekin egin du lan. Filipinetara joan zen urte batez “A year of hope”, bere azken filma egitera: “nire seme-alabak Danimarkakoak dira, ondo etorri zitzaien bizitzaren, errealitatearen beste alde bat ezagutzeko. Milioi bat haur baino gehiago bizi dira Filipinetako kaleetan, eta ezin zaie denei lagundu, filmaren mezua baikorra den arren.”

*Un grupo de menores de las calles de la capital de Filipinas, Manila, tienen la oportunidad de cambiar sus vidas para siempre. Se les ofrece una estancia de un año en un centro de rehabilitación en una isla, lejos de la ciudad que, en comparación con sus vidas pasadas, es un verdadero paraíso.*

*Muchos de los menores han sufrido abusos sexuales, son adictos a las drogas, han sido víctimas de violencia doméstica y han presenciado homicidios. Los protagonistas son Tracy, de 13 años, quien más que nada desea ser una dama, y el silencioso Joshua de 15 años, que ha olvidado cómo sonreír.*

*MIKALA KROGH*

*Graduada en la Danish Film School en 2011, ha trabajado con el maestro danés Jørgen Leth. Se mudó durante un año a Filipinas para rodar “A year of hope”, su última película: “mis hijos son de Dinamarca, fue bueno para ellos ver otra parte de la vida, de la realidad. Hay más de un millón de menores en la calle en Filipinas, y no se puede ayudar a todos; aunque el tono general del filme es optimista.”*

## Solasaldia

**Eva Silván**

*SAVE THE CHILDREN-Euskadiko zuzendaria.*

## *Coloquio*

**Eva Silván**

*Directora de SAVE THE CHILDREN-Euskadi.*



**Asteartea 20** Martes

# When the war comes

**Txekiar errepublika. 2017. 92 min. Dokumentala**

**Jatorrizko izenburua**/*Título original***:** Az prijde válka
**Zuzendaria/***Director:* Jan Gebert
**Gidoia**/*Guión:* Jan Gebert
**Ekoizleak***/Productores:* Radovan Síbrt, Alžběta Karásková & Tereza Polachová, Hanka Kastelicová
**Muntaia/***Montaje:* Jana Vlčková
**Argazkia***/Fotografía:* Lukáš Milota
**Musika**/*Música:* Johny Poupě

**Estreinaldia** / Estreno

Lehen begiratuan, ohiko Europar nerabea ematen du Peter-ek: gurasoekin bizi da, neska-laguna dauka eta unibertsitatean dabil ikasten. Baina, bere benetako bizitza beste toki batean dago: agintarien onarpen isilarekin ehunka eslovakiar nerabe errekrutatzen dituen “Slovenskí branci” izeneko talde paramilitar bateko buruzagia da. Taldearen helburua oso argia da: gudarako prestatu eta militar prestakuntzan, obedientzian eta beldurrean oinarritutako gizarte eredua sortzea.

Jean Gebert, filmeko zuzendariaren hitzetan: “Demokrazia mespretxatu eta lidergo sendoa nahi duten pertsona frustratu guztiak defendatu behar dituela uste du Peter-ek. Bere harridurarako, Europa Erdiguneko buruzagi politiko askok eta baita Etxe Zurikoek ere, berak atseginez hartzen duen ikuspuntu bera partekatzen dutela dirudi. Gizarteak argi berdea ematen dio”.

*A primera vista, Peter es un joven típico de Europa: vive con sus padres, tiene novia y ha entrado en la universidad. Sin embargo, su vida real está en otra parte: es el jefe de un grupo paramilitar llamado “Slovenskí branci” que recluta a cientos de adolescentes eslovacos con la silenciosa aprobación de las autoridades. El objetivo del grupo es simple: prepararse para la guerra y crear una comunidad modelo basada en el ejercicio militar, la obediencia y el miedo. Peter sueña que algún día podrá convencer a toda la sociedad, como un gran político.*

*Jean Gebert, director de la película: “Peter cree que su papel es defender a todas las personas frustradas que desprecian la democracia y anhelan un liderazgo fuerte. Para su sorpresa, muchos líderes políticos en Europa Central e incluso en la Casa Blanca parecen compartir su visión, que él encuentra muy alentadora. La sociedad le está dando luz verde“.*

## Solasaldia

**Jesús Álvarez**
Amnistía Internacional Euskadi

## *Coloquio*

**Jesús Álvarez**
Amnistía Internacional Euskadi

**Asteazkena 21** Miércoles

# Mr. Gay Syria



**Turkia. 2017. 87 min. Dokumentala**

**Jatorrizko izenburua**/*Título original***:** Mr. Gay Syria
**Zuzendaria**/*Directora:* Ayse Toprak
**Gidoia**/*Guión:* Ayse Toprak
**Ekoizleak**/*Productores:* Ekin Calisir, Christine Kiauk, Antoine Simkine
**Muntaia**/*Montaje:* Nadia Ben Rachid
**Argazkia**/*Fotografía:* Hajo Schomerus
**Musika**/*Música:* Zeo Handian

## Zinexit & Zinegoak

Hasiera ematen diogu ZINEGOAK, Bilboko LGTB Zinemaldiarekin izango dugun lankidetzari, saritua izan den dokumental honekin (Aipamen berezia Dokumental Luze Onenaren kategorian).

"Mr. Gay Syria filmak bi siriar errefuxiatu gayren gorabeherak jarraitzen ditu haiek bizia bideratzen saiatzen diren bitartean. Husein bizargina da Istanbulen eta bizimodu bikoitza darama familia kontserbadore eta bere gay identitatearen artean. Mahmoud, Berlinen bizi den errefuxiatua, siriar LGBTI mugimenduaren sortzaile da. Amets berak lotzen ditu biak: errealitate hertsien ihesbide eta ikusezin izatearen irtenbide izango duten nazioarte mailako edertasun lehiaketan parte-hartzea. Lortuko ote dute euren ametsa betetzea ala errefuxiatuen krisiak eta mundu musulmanean gay izatearen ondorio latzek hura hondatzea lortuko al du?

Zer ote du dokumental honek bai Madrilen, Parisen edo Sevillan bertan ere, zine-aretoetan ikusi duten guztiak proiekziotik hunkiturik ateratzeko? Zintzotasun ikaragarria, gainditzea eta kemena bizitzaren pizgarri eta benetako zinema ona."

*Iniciamos una nueva colaboración con ZINEGOAK, Festival LGTB de Bilbao, con una sesión que incluye este premiado documental (Mención especial en la categoría de Mejor Largometraje Documental).*

*"Mr. Gay Syria sigue a dos refugiados sirios gays mientras intentan reconstruir sus vidas. Husein es barbero en Estambul y vive una doble vida entre su conservadora familia y su identidad gay. Mahmoud, un refugiado que vive en Berlín, es el fundador del movimiento LGBTI sirio. Un sueño une a ambos: la participación en un concurso internacional de belleza que les servirá como vía de escape a sus realidades acorraladas y como respuesta a su invisibilidad. ¿Conseguirán hacer realidad el sueño o la crisis de personas refugiadas y las duras consecuencias por ser gay en el mundo musulmán lo romperán en pedazos?*

*¿Qué tendrá este documental que las personas que lo han visto en el cine, ya sea en Madrid, París o Sevilla, salen emocionadas de la proyección? Sinceridad a raudales, la superación y la fuerza como motor de vida y mucho, mucho buen cine."*

## Solasaldia

**Pau Guillén.** ZINEGOAK-eko zuzendaria.
**Adolfo Guerra.** Gay errefuxiatua.

## *Coloquio*

**Pau Guillén.** Director de ZINEGOAK.
**Adolfo Guerra.** Refugiado gay.



**Osteguna 22** Jueves

# City of ghosts

**AEB. 2017. 90 min. Dokumentala**

**Jatorrizko izenburua**/*Título original***:** City of ghosts
**Zuzendaria/***Director:* Matthew Heineman
**Ekoizlea***/Productor:* Matthew Heineman
**Muntaia/***Montaje:* Matthew Hamachek,
Pax Wasserman, Matthew Heineman
**Argazkia***/Fotografía:* Matthew Heineman
**Musika**/*Música:* Jackson Greenberg, H. Scott Salinas

**Estreinaldia** / Estreno

“Heinemanek RBSSa (Raqqa Isilean Ari dira Hiltzen) sortzea erabaki zuen siriar talde bati jarraitzen dio. Ekintzaile anonimoz osatutako talde honek, 2014an Raqqa bere eskuetan hartu zuen ISIS talde terroristak egindako abusuak salatzea du helburu.

Munduko talde odoltsuenetako batek sortutako izugarrikeria zabaltzeko estrategien lekuko bihurtzen gaituzte kamerek. Emaitza txunditurik uzten gaituen film bikaina dugu, eta informazio iturri den kazetaritzaren garrantziaren adibiderik onena bihurtu eta dokumentalak daukan indarra nabarmentzen da inoiz entzungo ez zenari ahotsa emateko.” (Arturo Grijalva, Cine Oculto)

“Nire filmaren mezua ez da era honetakoa: ‘zer ari zara egiten? Siriako mutilekin egon beharko zenuke’. Nire ustez, guda guneetako kazetaritza hau, tokian bertan egiten dena, oso garrantzitsua da, eta batzuetan filma horri eta zuzeneko lekukotasunari egindako omenaldia da.” (Matthew Heinemann)

*“Heineman sigue a un grupo de ciudadanos sirios que decidieron crear el RBSS (Raqqa está Siendo Asesinada en Silencio), un colectivo formado por activistas anónimos que deciden arriesgar sus vidas con el fin de denunciar los abusos perpetrados por ISIS, organización terrorista que tomó el poder de Raqqa en 2014.*

*Las cámaras nos vuelven testigos de las estrategias de propagación del horror por parte de una de las agrupaciones más sanguinarias del mundo. El resultado es un filme sobresaliente que roba el aliento, convirtiéndose en el mejor ejemplo de la importancia del periodismo como medio informativo y resaltando la fuerza que tiene el documental para dar voz a lo que nunca habría sido escuchado.” (Arturo Grijalva, Cine Oculto)*

*“El mensaje de mi película no es del tipo ‘¿Qué estás haciendo con tu vida? Deberías unirte a los chicos de Siria’. Para mí, este tipo de periodismo en la zona de guerra, sobre el terreno, es muy, muy importante, y a veces la película es un homenaje a eso y a la importancia del testimonio en primera persona.” (Matthew Heinemann)*

## Solasaldia

**Maribel Izcue.**
5W aldizkariko erredaktore burua.

## *Coloquio*

**Maribel Izcue.**
*Redactora-jefa de la revista 5W.*

**Ostirala 23** Viernes

# Twelve angry men



## AEB. 1957. 95 min. Fikzioa

**Jatorrizko izenburua**/*Título original***:** Twelve angry men
**Zuzendaria**/*Director:* Sidney Lumet
**Gidoia**/*Guión:* Reginald Rose
**Ekoizleak**/*Productores:* Henry Fonda, Reginald Rose
**Muntaia**/*Montaje:* Carl Lerner
**Argazkia**/*Fotografía:* Boris Kaufman
**Musika**/*Música:* Kenyon Hopkins
**Aktoreak**/*Intérpretes:* Martin Balsam, John Fiedler, Lee J. Cobb, E.G. Marshall, Jack Klugman, Ed Binns, Jack Warden, Henry Fonda, Joseph Sweeney, Ed Begley, George Voskovec, Robert Webber.

## Zinexit Classic

Edizio honetan ZINEXIT haziz doa, mundu osoko ikusleek "klasikoak" deitu dugun eremu horretarantz. Bakoitzak bereak ditu, jakina. Baina orokorrean berrikuntza, arrisku, emozio, poesia eta duintasu asko daukate. Egun, pantaila handi batean ikusita, hunkitzen gaituen arte handiaren adierazpenaren indarraz harritzen gaituzte.

"12 hombres sin piedad" maisulana Sidney Lumet-en lehendabiziko filma da, Henry Fonda eta Reginald Rose ditu ekoizle, eta azken hau gidoigilea ere bada. 1957ko apirilaren 13an estreinatu zen NYen, hiru Oscarretarako egon zen izendatua eta Berlineko Urrezko Artza irabazi zuen. 340.000 dolarretako aurrekontu xumearekin filmatu zen 17 egunetan NYeko Justizia Auzitegi Nagusiko Epaimahaiaren Aretoan.

Filma hau ikusteko aukerarik izan ez baduzu, hauxe da galdu beharko ez zenukeena. Eta ikusita baldin badaukazu, jakingo duzu pertsona baten bizitzako ordu eta erdi inbertitzeko erarik zoragarrienetakoa dela.

"Klasiko" hau dugu zineak giza eskubideen alde egin dezakeen adibiderik handienetakoa eta harekin dagoeneko ZINEXITen parte den atal hau irekitzea erabaki dugu.

*Esta edición ZINEXIT crece... hacia ese terreno al que espectadores y espectadoras de todo el mundo hemos venido a llamar como "los clásicos". Cada persona tiene los suyos, claro está; sin embargo, en general, suelen contener mucha innovación, riesgo, emoción, poesía, dignidad... Hoy en día, vistos en una pantalla grande nos asombran con la potencia expresiva de un arte grande que nos conmueve.*

*"12 hombres sin piedad" es una obra maestra y la primera película de Sidney Lumet, producida por Henry Fonda y Reginald Rose, también autor del guión. Se estrena el 13 de abril de 1957 en NYC, es nominada a tres Oscar y gana el Oso de Oro en Berlin. Se filma en 17 días con un modesto presupuesto de 340.000 dólares en la Sala del Jurado del Tribunal Superior de Justicia de NY.*

*Si Ud. tiene la suerte de no haber visto nunca esta película, esta es una oportunidad que no debería dejar pasar. Y si la ha visto, sabrá que volver a verla es una manera absolutamente maravillosa de invertir una hora y media de la vida de una persona.*

*Este "clásico" es un ejemplo mayor de lo que el cine puede hacer por los derechos humanos y con él hemos decidido inaugurar esta sección que ya forma parte de ZINEXIT.*

# Zinexit

# Zabalkuntza Udaletara

Euskal udaletara zabaltzea da erakusketa honen helburuetako bat urtean programatzen diren filmen inguruko eztabaidak eskainiz. Ekitaldi honetan hiru dira parte hartuko duten udalerriak.

Udalerri hauetako bizilagunek zinema emanaldi interesgarri batean eta ondoren izango den solasaldian parte hartzeko aukera izango dute, herrian bertan, eta doan, beti ere aretoa bete arte.

# Extensiones municipales

*Una de las intenciones de esta Muestra es extenderse por los municipios vascos ofreciendo debates en torno a las películas programadas cada año. En esta edición iniciamos este viaje divulgador y contamos con la participación de tres municipios.*

*Sus ciudadanas y ciudadanos tendrán directamente la oportunidad de asistir a una interesante proyección y a su posterior debate, con entrada libre hasta completar el aforo y en su propio pueblo.*




Razzia

## **20**/11

## Barakaldo

**Tokia**/*Lugar*: **Centro cívico Clara Campoamor**
**Eguna**/*Día:* **Asteartea 20** *Martes* **Azaroa**/*Noviembre*
**Ordua: 18:30**
**Solasaldia**/*Coloquio:*
**Sofía Marroquín, OXFAM INTERMON**

Razzia

## **28**/11

## Basauri

**Tokia**/*Lugar*: **Social Antzokia**
**Eguna**/*Día:* **Asteazkena 28** *Miércoles* **Azaroa**/*Noviembre*
**Ordua: 19:00**
**Solasaldia**/*Coloquio:*
**Sofía Marroquín OXFAM INTERMON**







Mr. Gay Syria

# **29**/11

## Vitoria-Gasteiz

**Tokia**/*Lugar*: **Florida Zinemak**
**Eguna**/*Día:* **Osteguna 29** *Jueves* **Azaroa**/*Noviembre*
**Ordua: 18:30**
**Solasaldia**/*Coloquio:*
**Adolfo Guerra.**

# Eskola

Beste urte batez luzatzen diegu ZINEXITen ekitaldi berri bat LHko ikasleei Giza Eskubideak irakaskuntzan jorra ditzaten.

Ekitaldi honetarako, animaziozko TOM TXIKI ETA ISPILU MAGIKOA filma aukeratu dugu. Aurten film luze honen bitartez Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena ospatu eta eskubide hauek existitzen direlako ESKERRAK emanez, hauen defentsan eta garapenean lan egiten jarraitu nahi dugu.

Ekitaldi honetarako bereziki egindako materiala prestatu dugu.

*Un curso más, ZINEXIT se extiende a los y las escolares de EPO para trabajar los Derechos Humanos en la enseñanza.*

*En esta edición hemos elegido TOM TXIKI ETA ISPILU MAGIKOA, porque en 2018 queremos celebrar el 70 aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y este largometraje de animación nos permite acercarnos a ello y dar las GRACIAS porque existan, para seguir trabajando en su defensa y en su desarrollo.*

*También hemos elaborado un material didáctico específico para esta sesión.*



# Tom Txiki eta ispilu magikoa

**Kuba. 2014. 78 min. Fikzioa**

**Jatorrizko izenburua**/*Título original:* Meñique y el espejo mágico
**Zuzendaria**/*Director:* Ernesto Padrón
**Gidoia**/*Guión:* José Martí
**Ekoizlea**/*Productor:* Ficción Producciones e ICAIC
**Musika**/*Música:* Manuel Riveiro
**Abestiak**/*Canciones:* Silvio Rodríguez

Tom Txiki bere familia txirotasunetik atera nahi duen nekazari txiki bat da. Uztak hondatzen dizkion intsektu izurri batek eta laranja itxurako ispilu magikoak abentura bidean jarriko dute.

*Meñique es la historia de un pequeño campesino que quiere sacar a su familia de la pobreza. Una plaga de insectos y el encuentro con el Espejo Mágico, son los sucesos que lo llevarán a la aventura.*

# Bosa!

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailak BOSA! programa antolatzen du ZINEXIT astean zehar. IrudiBERRIA Elkartearena da, Bilboko DBHko ikastetxeetara zuzendutako Aniztasunaren alde eta Diskriminazioaren aurkako ekimen hau.

Edizio honetako programak FILM LUZE bat eskaintzen du, giza eskubideen garapena lantzeko material didaktiko zehatzarekin batera.

*El Área de Igualdad, Cooperación, Convivencia y Fiestas del Ayuntamiento de Bilbao organiza durante la semana de ZINEXIT el programa BOSA!, una iniciativa de irudiBERRIA Elkartea por la Diversidad y contra la Discriminación, dirigida a los centros escolares de ESO de Bilbao.*

*En esta edición el programa incluye un LARGOMETRAJE y un material didáctico específico para trabajar en el desarrollo de los derechos humanos.*

# La bicicleta verde

**Saudi Arabia. 2012. 98 min. Fikzioa**

**Jatorrizko izenburua**/*Título original:* Wadjda
**Zuzendaria/***Directora:* Haifaa Al-Mansour
**Gidoia**/*Guión:* Haifaa Al-Mansour
**Ekoizleak**/*Productores:* Norddeutscher Rundfunk, Bayerischer Rundfunk, Rotana Group
**Muntaia/***Montaje:* Andreas Wodraschke
**Argazkia**/*Fotografía:* Lutz Reitemeier
**Musika**/*Música:* Max Richter



Haifaa Al Mansour-en opera prima honek, lehendabiziko arabiar emakume zuzendari bihurtzen du.

Saudi Arabiako Riad hiriburuko aldirian bizi den 10 urteko neskatoa da Wadjda. Emakumeei edozein eskubide eta askatasun ukatzen zaizkien testuinguru batean bizi arren, oso alaia da Wadjda, amerikar musika entzutea du atsegin eta "harekin jolastu behar ez lukeen" bere lagun Abdullah-ek daukan bezalako bizikleta bat izan. nahi luke.

*Esta opera prima de Haifaa Al Mansour, la convierte en la primera directora de cine árabe.*

*Wadjda es una niña de 10 años que vive en los suburbios de Riad, la capital de Arabia Saudí. A pesar de estar en un contexto en el que a las mujeres se les niega todo derecho y libertad, Wadjda es divertida, le gusta escuchar música americana y quiere conseguir una bicicleta como la de su amigo Abdullah, "con quien no debería jugar".*

**ANTOLATZAILEA** / ORGANIZA

**KOORDINATZAILEA** / COORDINA

**KOLABORATZAILEAK** / COLABORADORES

**ESKERRAK** / AGRADECIMIENTOS